

Hobelex-en eskuliburua



Edukia

| | |
|-----------------------------------------------------|---|
| 1. Eskakizunak..... | 3 |
| 1.1 Sistema eragilea | 3 |
| 1.2 Zer software behar da..... | 3 |
| 2. Instalatzea/eguneratzea eta desinstalatzea | 3 |
| 2.1 Instalatzea | 3 |
| 2.2 Desinstalatzea..... | 6 |
| 3. Lexiko-zuzentzailea | 6 |
| 3.1 Zer da eta nola erabiltzen da?..... | 6 |
| 3.2 Erabiltzailearen hiztegia | 9 |

Hobelex lexiko zuzentzailea erabiltzeko behar den informazioa biltzen du eskuliburu honek.

LibreOffice-rako garatutako Hobelex zuzentzaile lexikoak, ortografia zuzentzen laguntzeaz gain, lexikoa hobetzeko proposamenak egiten dizkigu.

Hobelex etengabe eguneratzen da, eta UZEIren webgunetik instalazio-prozesua egiten den bakoitzean, Euskaltzaindiaren arauak betetzeko informazio eguneratuarekin lan egin ahal izango dugu.

Zuzentzaile honek LibreOffice aplikazioetan funtzionatzen du: Writer, Calc, Impress eta Draw.

1. Eskakizunak

1.1 Sistema eragilea

Hobelex zuzentzailea instalatzeko, sistema eragile hauetakoren bat eduki behar da instalatuta ordenagailuan: Windows (Windows XP, Windows 7, Windows 8 edo Windows 10), Linux edo Mac OS.

1.2 Zer software behar da

Hobelex instalatzeko, Hobelex LibreOffice-k ez du eskakizun berezirik, nahikoa da 32 biteko LibreOffice 5 edo berriagoa instalatua edukitzea.


2. Instalatzea/eguneratzea eta desinstalatzea

2.1 Instalatzea


Hobelex instalatu ahal izateko, <http://www.uzei.eus/hobelex/> gunetik deskargatuko duzu fitxategia lehenik. Deskargatu duzun fitxategi hori exekutatzean, Hobelex instalatu ala eguneratu egingo duzu (lehendik instalatuta badaukazu, eguneratu egiten da).

Hobelex_libreoffice.oxt. fitxategia ordenagailura deskargatu ondoren, bi aukera ditugu:


1. LibreOfficeko menu barran, aukeratu **“Tresnak > Hedapenen kudeatzailea...”**.




2. Sakatu "Gehitu" botoia eta jaitziko hobelex_libreoffice.oxt ireki.



3. Egin klik bikoitza deskargatutako hobelex_ libreoffice.oxt fitxategian. Horrelako mezu bat agertuko zaigu:



Instalatu nahi duzula baieztatu "Ados" botoia sakatuz, eta ondoren **hedapenen kudeatzailean** Hobelex agertuko zaizu instalazioa ondo burutu bada . Horrelako zerbait:



LibreOffice berrabiarazi beharko duzu erabiltzen hasteko.

2.2 Desinstalatzea

Hobelex desinstalatzeko, LibreOffice-n hautatu Tresnak > Hedapenen Kudeatzailea... (aurreko pantaila berean), egin klik Hobelex atalean, eta eskaintzen dituen aukeretan sakatu "Kendu" botoia. Adierazi "Ados" zaudela eta Hobelex ordenagailutik desagertuko da.

3. Lexiko-zuzentzailea


3.1 Zer da eta nola erabiltzen da?

Instalatu ondoren, Hobelex-ek Libre Office-ren zuzentzaile ortografikoak bezala funtzionatzen du. Ortografia-akatsak detektatu eta gorri azpimarratzen ditu. Saguaren eskuineko botoiarekin gainean klik egindakoa, azpimarratutako hitza aldatzeko, antzeko hitz zuzenak proposatzen ditu. Haietatik intereseko duguna aukeratu, eta Hobelexek ordeztu egingo du.


Gainera, ortografikoki ongi idatziak badaude ere, hobetu daitezkeen hitzak urdinez azpimarratuko ditu. Saguaren eskuineko botoiarekin gainean klik egindakoa,

azpimarratutako hitza aldatzeko lexiko hobe edo egokia proposatzen du. Proposatutako hitzetatik intereseko duguna aukeratu, eta Hobelex-ek ordeztu egingo du.


Hobelex LibreOffice erabiltzen hasteko, menuan Tresnak -> Aukerak... hautatu. Bertan Hizkuntza-ezarpenak -> Hizkuntzak hautatu, eta Dokumentuen hizkuntza lehenetsia > Euskara.



Idatzi ahala ortografia-akatsak zuzentzea nahi badugu, horrela adieraziko dugu. Hobelexen bertute guztiak baliatu nahi baditugu, gramatika zuzenketak ere aktibatuko ditugu, irudian ikusten den moduan. Horrela azpimarra urdinak ikusi ahal izango ditugu. Ikus hurrengo irudia.




Bestalde, menu horretan bertan, Hizkuntza-modulu erabilgarrien zerrendan **Hunspell desautatu** behar dugu Hobelex izan dadin LibreOffice-n aktibatuta daukagu zuzentzailea. (Egin klik Hunspell SpellChecker aukeraren laukitxoan markatu gabe uzteko)



3.2 Erabiltzailearen hiztegia

Libre Office-n idazten ari garen bitartean, hitz bat gorritz azpimarratuta agertzen bada, hitz hori gure hiztegi pertsonalean txertatzeko aukera daukagu. “Hiztegiari gehitu” aukeran klik egin, Hobelex aukeratu eta honelako leiho berri bat agertuko da.



Gehitu hitza Hobelex hiztegian

Erroa: Esparragu

Kategoria: Izen arrunta
Pertsona izena
Toki izena
Erakunde izena
Aditza
Adberbioa
Izenondoa

Hobe:

Erabili:

Utzi Gorde

Bertan hitzaren lema (erroa) agertzeaz gain, zer hitz mota den (Izen arrunta, Aditza, ...) aukeratu beharko dugu, gure hiztegi pertsonalak zuzentzeko proposamena egiterakoan hitza egoki deklina dezan. Hitz horren tratamendua **HOBE** zein hitz edo **ERABILI** halako hitz ezartzeko aukera dugu. Hortik aurrera lema hori duen hitz bat agertuko balitz, **HOBE** “halako” dela esango digu Hobelexek urdinez azpimarratu ondoren edo “halako” erabiltzeko proposatuko digu Hobelexek, gorritz azpimarratu ondoren.